

Liburuak

KRITIKA

Gustu kontua

Helduen literatura | POESIA

Igor Estankona

EXISTENTZIA duda etenbakoa denez, Jose Inazio Lasak (Olaberria, 1956) beste pertsonengan eta maitasunean bilatzen ditu behin-behineko heldulekuak *Denboraren hosto artetik* trinko honetan. Ondo hautatu du editoreak adibidetzat ze poema ipini, ideia hau –maitasuna vs. noraeza– ilustratzen baitu ederto: “Barne-taupadak, ezusteko^z beteak, / zoritxarrari men eginez, susmati. / Baina, zurekin batera pausatzean, / denbora deusez^{ten} dutē”.

Zergatik poesiara jo, beraz, auzi handien erantzunen xerka? Seguruenik geugandik, barneko isiltasun-galde sakonetatik hasi behar delako hausnarketa oro. Euskal poesian pisu nabarmena hartzen ari den korrontea da filosofia eta lirika uztartzen dituen, etika berezi bat ezarriz estetikari. Haikuaren dotoreziari eta poesia puruaren sinpletasunari eranstean dio idazleak beraz misterioa atzemateko ariketa beti antzua, beti beharrezkoa.

Liburuan zehar bere buruari itauntzen dio zer ote den lilura eta zer errealitatea. Tautologia aplikatuz eta



Denboraren hosto artetik.
Jose Inazio Lasak.
Erein, 2012.

errepikapenaren bidez doa Lasa eraikiz egia bat konstantea: egirik ez dagoela, ezpada bakoitzaren kontzientzia. Bere alde esan behar da ez dela erretorikoa edo hutsala suertatzen diskurtso hori, eta modu originalean begiratzen diola betikoari. Norbere baitan esploratzen duen bidatzia da.

Lasak proposatzen dituen bide horietatik ibili edo ez ibili irakurle bakoitzak erabaki behar du. Uneka *Denboraren hosto artetik* izan daiteke idorregia, pentsamenduaren lurraldeetatik paseatzea idorra delako berez. Finean, poesia mota honek ez du pentsamenduan oihartzuna bilatzen: pentsamendua da. Introspektzioa, hausnarketa, barnekoa ateratzeko beharra... poesiaz jantzia dator gutzia, eta ez alderantziz.

Eta gozatzen dut Lasari egindako elkarrizketekin, eta interesgarria iruditzen zait gogoak errealtatea hobetzeko duen gaitasunean sinesten dutenen arrazoibidea. Idazleak berak dio kosta egiten zaiola ulertzea *filosofia* hitza aparte uzteko dagoen joera, eta errebindikatu egiten ditu “beste era bateko” galderak. Honelako liburu bat esku artean hartzen dudanean, ordea, ezin eta ahalka gozatzen dut digresioaren poesia: gezur, nabarmenkeria, adornu, ederman eta are itsustasuna bilatzen ditut liburuetan, eta Lasarena bezalako literaturek ez dizkirate eskaintzen. Beti berdin, beti neurtu, beti lau... azkenean gogortxo egiten zait hainbeste iragazki tautologiko, hainbeste kalkulu filosofiko.



CAMPOS

1921-ETIK, CAMPOS-EK
HEGALUZE-KONTSERBA EGITEN DU
DENBORAREKIN HARTUTAKO OHITUREI
ESKER, HEGALUZERI K ONENA BILATZEN
DU ZUK, GAUR, KALITATEZKO PRODUKTU
GOZO BATEKIN GOZATZEKO.

Gure webgunean erosi: www.clubcampos.com

ogiaren egia

Zatoz eta ezagutu
garai batean
egiten ziren ogiak,
lehengo osagai
eta teknikekin

Galparsoro
OKINDEGIA

Antzinako ogiaren kabia
bihurtu baitugu
denda zahar berria

Kale Nagusia 6 (Alde Zaharra) - DONOSTIA - Tel.: 943 421 074